



Beñandikoa etxebizitza

Alduerak: Andikoa
Ahozkoa: Bēñeandikue



43° 9' 42"

2° 33' 51"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería rústica titulada accesoria de Murgoiñobeña... situada en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz [Cofradía de Murgoiñio], que comprende cuarenta y nueve estados equivalentes a un área y ochenta y seis centiáreas de cabida, y la que se compone de piso bajo con cocina, un dormitorio, cuartos y una tejabana, y de piso principal con desban...”

DJE 2/154 or. (1868)

Murgoiñobeña (**Ikus Murgoiñobeña**) baserriaren alboko etxea, dokumentazioan *arnaga* edo *accesoria* moduan erregistratzen dena. Gerora baserri-etxea bihurtutako eraikin honen inguruko lehen aipuak XIX. mendean aurkitzen ditugu: *Beña-arnaga* (1865, DJE, 1/ 102. or). Ordurako, bizileku moduan funtzionatzen zuen. XX. mendeko aipuek, aldiz, *Beña accesoria* (1910, BUA, RU) izenez jasotzen dute. *Done Joanes* (**Ikus Done Joanes**) aldeko auzotarrek, oster, *Andikue* edo *Bēñeandikue* izenez ezagutu eta ahoskatzen dute.

Etxeak hiru isurkitako teilatua du, eta XIX. mende amaieran berreraiki zuten etxea. Fatxada oso era sinplean ordenatu zuten, hiru ardatz eratuz eta baoen neurriak solairuen arabera egokituz. Atea albo batean dagoen arren, erdialdea nabarmentzen da, bata bestearen gainean kokatutako balkoien bitartez. Aldamenean, leihoak ireki zituzten: neurri berekoak dira beheko eta lehen solairukoak, eta txikitxoagoak, aldiz, ganbarakoak. Bertan, alderik alde doan balkoia egin zioten beranduago, bertikaltasuna hausten duena. Azpimarratzekoa da horma zurriak eta ertzetako harriek egiten duten kolore-jokoa.

toponimia

Murgoiñobeña (**Ikus Murgoiñobeña**) baserriarekin lotura zuzena duen toponimoa da, eta “Beña baserriaren beste aldean dagoen etxea” esan nahi du. Etxe berria da, eta dokumentuan *accesoria* edo *arnaga* kalifikazioaz ageri da. Gaztelaniaz, horrela deitzen zitzaizen etxe nagusi baten ondoan eraikitzen zen *etxetxo berriari*, euskaraz *etxetxo* edo *txosna* deitzen zena. Izenaren bigarren osagaia, handi, arrunta da oso gure toponimian, eta inoiz ‘nagusi’ hitzarekin nahastu izan da.